

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Nafarroako gorteak

Xabier Zabaltza • IRUÑEA

Nafarroako Parlamentuaren egoitza berria sarri ireki behar dutenez, honen bidez haren kide guztiei eta bereziki José Luis Castejón Garrués haren lehendakariari noakie, erakunde horren izen historikoa berreskura dezaten.

584 urtez (1245etik 1829ra bitarte) gure ordezkari-izakundeari «Nafarroako Gorteak» iritzi zion. 23 urtez bakarrik (1979tik 2002ra bitarte) izendatu da «Parlamentua».

Forua Hobetzeko Legeak —11. artikulutik 22. artikulura bitarte— «Nafarroako Gorteak» ohiko deitura ere aipatzen du. Lau erkidego beregainetako lege-biltzarrei (Valentziakoari, Aragoikoari, Gazte-

la-Mantxakoari eta Gaztela eta Leongoari) "Gorteak" deritze. Beraz legeek ez dute eragozpen bat ere Nafarroakoari berdin esan dakion. Uste osoa dut nafar gehien-gehienak gogaide ditudala.

«Nafarroako Parlamentua» deitura, gainera, nahasgarria da. Izan ere, 1624az geroztik Nafarroako Kantzelaritza eta Paueko Kontseilu Goierna bildu zituen erakundea izendatzeko erabili da. Gaur egun Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseilu Nagusiaren egoitza da, non Lapurdiko, Baxenabarreko, Zuberoako eta Biarnoko ordezkariak baitihardute.

Espero dut alderdien eledunek gutun hau kontuan hartu eta oker historiko larri bat konpon dezatela. Neroni dagokidenez, Iruñean beti ehunkako urteko Nafa-

roako Gorteak egonen dira, ez herrian batere erroturik ez dagoen Parlamentu bat.

EA: salbuespenik gabe?


Fermin Sola • IRUÑEA

Indarkeria gertaerak jazo bakoitzean kalera aterako zinetela iragarri zenuten duela hilabete batzuk. Horri jarraiki, maiz aterata zarete jada; azkena, astearte honetan bertan, Andoainen, «Giza eskubideekin bat; biktimekin bat; salbuespenik gabe» lelopean eta herri gipuzkoar honetan azken egunetan gertatu kale erasoak gaitzesteko asmoz. Primeran iruditzen zait. Baina zergatik ez zineten Oreretan elkarretaratu Egoitz Gurrutxagaren senideei hilotzari azken agurra emateko ze-

gokien eskubidea urratu eta oztopatu zitzaienean? Zergatik ez zineten Ibarren, Barakaldon, Portugaleten, Algortan eta Berangon elkarretaratu, bertako hainbat herritar atxilotu eta haien eta senideen oinarrizko eskubideak urratu ostean?

Zergatik ez zarete kalera atera aipatu herritar horiek komisarian pairatu dituzten tortura bortitzak salatuzko? Ez al dira guztiak biktimak? Eusko Alkartasuneko kideak, zuek zarete —zeuen praktika berarekin— biktimen inguruan salbuespenak egiten dituzuenak. Estatuen indarkeria zilegitzen duen sasibakezale ugari dago jada gurean, eta zuek ere paper hori betetzen! Alde guztietako sufrikarioaren gainetik, koherentzia eta ausardia, batez ere ausardia, dira herri honek behar dituenak.

montxo



galdeiozu... ?



IBAN MAYO

Txirrindularia

Txirrindulari erasokorra izanda, Espainiako Vueltan gutxitan ikusi zintugun erasoan. Indarrez justu zinelako? Postua defendatzeagatik?

Kepa Lazkano (Donostia)

Azken finean, bi arrazoirengatik agian, nahiz eta nire iritzi nahiko eraso jo nituen. Gertatzen dena zera da: sailkapenean ondo kokatuta nengoen, eta eraso jotzen denean bi helbururekin jotzen da: edo etapa irabazteko edo sailkapenean zure aurretik daudenei min egiteko. Eta denak indartsu zihoazenez, ez zegoen aukera handirik ere eraso jotzeko. Eta neukana defendatzeko ere nahikoa lan izan nuenez... Indarrak ere kontrolatu behar dira.

Azaroaren 12tik aurrera **Felix Linares • Kazetaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako. galdeiozu@egunkaria.com

hirusta



Edu Zelaieta

'Gasteiz Txiki'

Bitxia da entzutea, bereziki gasteiztar petoei, Gasteiz nahiko txikia dela eta edozein tokitara oinez joan daitekeela hamar minututan. Nik ez dut kontrakoa esango, neu ere gasteiztarra naizen aldetik, mentalitate horretan hezi binaute. Alabaina, inguruko hirietara begira jarriz gero, Bilbo izan ezik beste guztiak Gasteiz baino txikiagoak direla konturako gara. Egia da, eta hortik etor liteke gakoa, orain dela 50 urte 55.000 biztanle zirela, eta gaur egun, berriz, 220.000 pasatxo. Hiri txikiaren kontzientzia historikoa, nonbait.

Hala ere, Gasteiz ez da batzuek desio duten bezain txikia, eta are txikiagoa egin nahi dute. Gauza da Gasteizko Udalak aurkeztu duen plangintza bereziarekin Alde Zaharra zeharo eraldatu nahi duela, bertako auzokoen beharrak eta iritzia kontuan hartzeke: gatzetxea bota eta haren ordez begiratoki bat jarri, aldapa

batzuetan eskailera mekanikoak ipini, bertakoei aparkatzeko lehentasunik ez duten aparkaleku bat egin, Erdi Aroko harresiaren lau harri koskorak ikusi ahal izateko pasealeku bat bizi-lagunen pribazitatea errespetatu barik, pasealeku hori egiteko bertakoen patioak eta barrukoak publikoak izango baitira, eta abar.

Zorionez, duela aste batzuk aldaketa hauek argitzeko batzarrera bostehun lagun inguru bildu ziren, baina gehienak kanpoan geratu ziren. Horrek Europa Biltzar-Etxean beste batzar bat egitera behartu zuen. Bi bilerotan, jendearen presioari esker, PPko udal gobernuak zenbait gauzatan atzera egin behar izan du, eta segur aski, atzerago egin beharko ere.

Victoria hiria eraikitzean Gasteiz herrixkan oinarrিতua izan zela ahaztu bide dute gure agintariek. Eta bertako auzokideen elkarte den Gasteiz Txiki-ren kemena ere bai.